

## Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA Jn.

### Donostia Udaleko idazkari nagusia naizen honek Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián

#### Neuk ziurtatua: Certifico:

Donostia Udaleko Bozeramaileen Batzordeak 2016ko martxoaren 18ko bilkura arruntean hurrengo erakunde adierazpena onartu zuen, eta puntuaz puntu bozkatu ondoren, ondoko bozketak izan ziren:

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 18 de marzo de 2016, aprobó, la siguiente Declaración Institucional, que fue sometida a votación por puntos, con el siguiente desglose de la votación:

1. 2. eta 4. puntuak: aho batez onetsiak.

Puntos nº1, nº2 y nº4: Aprobados por unanimidad.

*"Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak dionez, emakume-gizon guztiak aske jaiotzen gara, duintasun eta eskubide berberak ditugula, eta pertsona orori dagozkio adierazpen horretan jasotako eskubide eta askatasunak, eta ez da inolako arrazoiengatik bereiziko, batez ere arraza, larru-kolore edo jatorriagatik. Oinarritzko eskubideen sustapena, bereizkeria eza eta pertsona guztientzako aukera berdintasuna funtsezko elementuak dira elkarbizitzarako eta jatorri ezberdinetako pertsonak hartzen dituzten komunitateen gizarte-kohesiorako; eta Donostia komunitate horietako bat da.*


*"Tal como proclama la Declaración Universal de los Derechos Humanos, todos los hombres y mujeres nacemos libres, con la misma dignidad y los mismos derechos, y los derechos y libertades recogidos en dicha declaración corresponden a todas las personas. Nadie debe ser discriminado por ningún motivo, especialmente por su raza, color de piel o procedencia. En la promoción de los derechos fundamentales la no discriminación y la igualdad de oportunidades para todas las personas son elementos imprescindibles para la convivencia y la cohesión social de las comunidades que acogen a personas de diferentes procedencias, tal como ocurre en San Sebastián.*

*Jatorri ezberdinetako pertsonak eskubide eta betebeharrak dituzten herritarrak dira. Aske izateko eskubidea, berdintasunean tratatua izateko, aukeratzeko eskubidea, adierazpen eskubidea, osasun- eta gizarte-laguntza jasotzeko, sortzen laguntzen duten aberastasunaren ondasunak jasotzekoa. Gure herrialdea osatzen dute eta parte aktiboa dira. Euskal gizartearen eta administrazioen erronka da eskubide horiek beteko diren, eginbeharrak onartuko diren eta pertsona guztien artean komunitate osatuko duen elkarbizitza bat antolatzea.*

*Las personas de diversas procedencias son ciudadanas y ciudadanos con derechos y obligaciones. Derecho a ser libre, a ser tratado en igualdad, derecho a elegir, libertad de expresión, a recibir asistencia sanitaria y social, a recibir los beneficios de la riqueza que ayudan a crear. Forman y son parte activa de nuestro pueblo. Es un reto de la sociedad vasca y sus instituciones organizar una convivencia en la que se cumplan esos derechos, se acepten las obligaciones y se forme una comunidad entre todas las personas.*

*Herritartasuna, hezkuntza, zerbitzu publikoak, lan merkatua eta kultur bizitza modu bidezkoan eskuratzeko, ezinbesteko baldintza izango da gobernu eta erakundeak kulturaz elkarren*

*Para acceder a la ciudadanía, a la educación, a los servicios públicos, al mercado de trabajo y a la vida cultural de un modo digno, resultará condición indispensable que el gobierno y las*





ezberdinak diren gizaldeentzat diseinatuta egotea eta, ondorioz, kultur gaitasuna duten banakoek eta taldeek administratzea. Eta onarturik dagoen heinean aniztasuna baliotsua dela gizakiak eta gizarteak garatu eta kohesioa izateko, ekonomia hazteko, ekoizteko, sortzeko eta berritzeko, eta aniztasunaren onura horiek gauzatu ahal izateko, politikek tokian-tokira egokiturik egon behar dutela, gatazkei aurre hartu eta aukera berdintasuna eta gizarte kohesioa sustatzeko prest.

instituciones estén diseñadas para grupos humanos diversos culturalmente y, por tanto, que administren personas y grupos con capacitación cultural. Y en la medida en que esté asumido que la diversidad es valiosa para desarrollar a las personas y a las sociedades y para la cohesión, para el crecimiento económico, para la creación y la innovación, y para poder materializar todos esos beneficios de la diversidad, las políticas deben estar adaptadas a lo local, dispuestas a prevenir los conflictos y a fomentar la igualdad de oportunidades y la cohesión social.

Kulturarteko gizarteratzearen ikuspegiaren oinarria da gutxiengoko kulturak babestea, kulturetako gaitasuna, hizkuntz aniztasuna, kulturarteko hezkuntza, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzea, gorrotoa eragiteari aurre hartzea, hedabideek tolerantziaren kultura sustatzea, etorkinen nahiz gizarte hartzaileen arteko elkarrekintza, eta gizarte zerbitzuek kulturartekotasunean gaitasuna izatea.

La base de la integración intercultural es la protección de las culturas minoritarias, la capacitación cultural, la diversidad lingüística, la educación intercultural, la lucha contra el racismo y xenofobia, prevenir la incitación al odio, promocionar desde los medios de comunicación las cultura de la tolerancia, la interacción entre las personas migrantes y las sociedades de acogida y que los servicios sociales estén capacitados en la interculturalidad.

Horiek horrela, kulturak eta kultur ondareak, eginkizun garrantzizkoa dute hiria espazio publiko komun partekatu moduan eraikitzeko tenorean, hiritarrak adoretzen baitute nortasun pluraltasuna arakatzera kultur ondarearen eta egungo kultur adierazpideen aniztasunaren bidez, baita lehenaldi partekatu bat dugula eta etorkizun bateratu bat dugula sustatuz ere.

Así, la cultura y el patrimonio cultural tienen un cometido importante a la hora de construir la ciudad como espacio público común compartido, al animar a la ciudadanía a profundizar en la pluralidad identitaria mediante el patrimonio cultural y la diversidad de expresiones culturales, y también mediante el fomento de la idea de que poseemos un pasado compartido y un futuro común.

Beraz, argi dago hiri inklusiboak gai dira populazioaren baliabideak, trebetasunak eta sormena erabiltzeko, hiria erakargarriago bihurtu eta inbertsio eta lan aukera berriak erakartzearren.

Por tanto, está claro que las ciudades inclusivas tienen capacidad de utilizar los medios, habilidades y creatividad de la ciudadanía para hacer más atractiva la ciudad y atraer nuevas oportunidades de empleo.

Hori dela eta, Donostiako Udalak honako Erakunde Adierazpena onartzen du:

Por todo ello, el Ayuntamiento de San Sebastián aprueba la siguiente declaración institucional:

1.- Donostiako Udalak ahalegin berezia egingo du sexu, nazionalitate, jatorri etniko edo kultural, aukera sexual, desgaitasun edo sinesmenengatiko bazterkeriari aurrea hartu eta jazoz gero berauek salatzeko.

1.- El Ayuntamiento de San Sebastián realizará un esfuerzo especial para prevenir la discriminación por razón de sexo, nacionalidad, origen étnico, opción sexual, discapacidad o creencias, y, en caso de que sucedan, para denunciarlas.

2.-Donostiako Udalak, 2014an burututako hiriko diagnostikoa kontuan hartuz, kulturarteko gizarteratze hiri eredu bat sustatuko du, bai eta hura abiaraztea erraztu eta horren eragina jasoko duen elkar-aitortza eta bizitzarako plana landuko ere.

2.- El Ayuntamiento de San Sebastián, tomando en consideración el diagnóstico realizado en 2014 sobre la ciudad, fomentará un modelo de ciudad culturalmente integrador, y también facilitará su puesta en marcha, además de elaborar un plan de reconocimiento mutuo y convivencia que recoja su influencia.

3.-Donostiako Udalak udal jarduna berdintasunaren eta bereizketa ezaren printzipioen arabera beharrezkoak diren protokoloak garatzeko konpromisoa hartzen du, kulturen arteko bizikidetzeta eta gizarte-kohesioa lortzeko helburuarekin.

3.- El Ayuntamiento de San Sebastián se compromete a desarrollar la actividad municipal según los principios de igualdad y no discriminación, con el objetivo de lograr la convivencia entre culturas y la cohesión social.

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatezak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2016ko apirilaren 26an.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 26 de abril de 2016.

**IDAZKARI NAGUSIA -  
EL SECRETARIO GENERAL:**

  
**Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga**



**ALKATEAK O. E. -  
V.º B.º DEL ALCALDE:**



**Eneko Goia Laso**